



*Sortuko dira besteak* agerkaria Gasteizko Principal Antzokian izango da abenduaren 15ean, eta Donostiako Kursalean abenduaren 22an.

## Besteak

BILBOKO Arriaga antzokira itzuli naiz. Areto honek ez du bereziki euskarazko emankizunik ugari eskaintzen, ez bada formato txikian –badakizue, euskaldunok merkatu txikia gara–, eta Gabonak hor daudela, *La Bella y la Bestia* ikuskizun musikalaren kartelak ikusi ahal dira, antzokiaren kanpoaldean. Baina dirudenez, euskarazko ikuskizunak errentagarriak ere izan litezke batzuetan. Euskaldunok badakigu tamaina handikorik ere antolatzen, eta hara, *Sortuko dira Besteak*-k, ildo horri jarraitzen dio. Sarrerak agortu ez baziren ere, Arriaga Antzokia leporaino beteta zegoen, “ez dago eserlekurik patioan” aditu nion lehiatilako neskari.

Adin guztietako jendea bildu zen gure kantari klasikoei (Xabier Lete, Mikel Laboa, Imanol, Benito Lertxundi...) egindako omenaldian, baina adin ertaineko jendea zen nagusi, frankismo osteko urte emankorretan, gazte eta nerabe zirenak, abestiak haien gogoan iltzatuta dituztenak.

Ekitaldi honen jatorria, *Xabier Lete Gogoan* bira arrakastatsuan dago. Bira hori Euskal Herri osoan barrena egin zen 2011n, zendu berri zen poeta eta kantariari gorazarre egin asmoz.

Bigarren aldiz, Eñaut Elorrieta (Ken 7), Alex Sardui (Gatibu), Mikel Urdangarin, Petti, Arantza Irazusta eta Pier Paul Berzaitz aritu ziren oholta gainean abesten. Bernardo Atxagak eta Amets Arzallusek idatzitako testuak izan zituzten lagungarri, ekitaldi horretarako espresuki sortutakoak.

Joxan Goikoetxea piano eta soinu-joleak zuzendu zituen musikariak.

Euskal Herriko kantari klasikoen abestiei beste arnas bat ematea genuke talde honen asmoetako bat. Beste bat, nazioarteko zenbait ahots handiren doinuak euskarara moldatzea. Modu honetan, *Ne me quitte pas* eta *Amsterdam* (Jacques Brel), *So long Marianne* (Leonard Cohen), *The old ways* (Loreena McKennitt), *Tu gitana* (José Afonso), *Yo pisaré las calles nuevamente* (Pablo Milanés) edo *L'estaca* (Lluís Llach) kanten euskarazko bertsioak entzun genituen.

Abesti rockeroagoak ere izan genuen entzungai. Esate baterako, Ruper Ordorikarenak edo Rolling Stonesen abesti handien bertsioak.

Xabier Leteren, *Izarren hantxa* kantutik hartu dute emanaldirako goiburua: *Sortuko dira besteak*. Hori-ze egin dute sei kantariak, Oiarzungo olerkari eta abeslariak

hurrengo belaunaldiei egindako gonbidapena onetsi, aurretik izan ziren musikari eta sortzaileen lanari jarraitzeko nahi horri bide eman. Gustura aritu ziren kantariak, antzianako abestiak joz, askotan buruz, akorde eta hitzetan, hortik edan baitute euren hastapenetan, egungo euskal musikari askok.

Bernardo Atxagak eta Amets Arzallusek testu bana irakurri zuten. Hendaiko bertsolariak mugan jaio eta hilko ote den galdetzen zuen. Atxagak berriz, *Oh! My Darling Clementine* AEBetako folk abestia eta Jon Mirandek abesti horren gainean egindako *Ene Kattalin* bertsioa izan zituen mintzagai.

Xabier Leteren beste abesti batzuen artean, *Euskal Herri nerea*, *Altzateko jann* eta *Lore bat zauri bat* entzun genituen ikuskizun honetan, eta Leterekin batera, Laboa, Lertxundi eta Imanol. Baina baita Bitoriano Gandiaga, Lauaxeta, Gabriel Aresti edota Sarrionaindiaren testu musikatuak ere, 30 abestiz osatutako erreperatorioan. Alderik berri-tzaileena, beste herrialde batzuetako kantu aski ezagunak euskarara moldatu izana. ■

Myriam Garzia

